



Azpeitiko Euskara Patronatua

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

AZPEITIA

III. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA



Azpeitia, 2023ko udaberria

Aurkibidea

AZPEITIKO MAPA SOZIOLINGUISTIKOA

1. BIZTANLERIA.....	2
1.1. Azpeitiko biztanleriaren bilakaera eta egitura	3
1.2. Atzerriko immigrazioa.....	5
1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak	8
1.4. Helduen euskalduntzea.....	10
2. HIZKUNTZA-GAITASUNA	12
2.1. Hizkuntza-gaitasunaAzpeitian	13
2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera.....	15
2.3. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera	19
3. LEHEN HIZKUNTZA.....	20
3.1. Lehen hizkuntzaAzpeitian	21
3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera	23
3.3. Lehen hizkuntza sexuaren arabera	26
3.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera.....	27
3.5. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera	29
4. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN	32
4.1. Euskararenerabilera etxean Azpeitian.....	33
4.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera.....	34
4.3. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera.....	37
4.4. Euskararen erabilera etxean euskaldunen artean	37
5. LABURBILDUZ	42

1.BIZTANLERIA

1.1. Azpeitiko biztanleriaren bilakaera eta egitura

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, Azpeitiak 15.329 biztanle ditu. Duela 40 urteko populazioarekin konparatuz, biztanleriak % 16,2 egin du gora (2.133 pertsona).

Urola-Kostako biztanleriak Azpeitikoak baino hazkunde handiagoa izan du 1981tik 2021era bitartean, % 25koa hain zuzen (15.341 biztanleko hazkundea).

EAEn eta Gipuzkoan biztanleriaren hazkunde txikiagoa izan da azken 40 urteetan (% 2,5 eta % 3,5 hurrenez hurren). Izan ere, 1981etik 2001era biztanleriak behera egin zuen bai EAEn (% 2,8) eta bai Gipuzkoan (% 3). Aldiz, 2001etik 2021era, gora egin du biztanleriak bai EAEn (% 5,3) bai Gipuzkoan (% 6,7).

Biztanleriaren bilakaera. 1981-2021

	1981	1991	2001	2011	2021
Azpeitia	13.196	13.427	13.708	14.540	15.329
Urola-Kosta	61.410	63.162	66.428	72.930	76.751
Gipuzkoa	694.681	676.488	673.563	705.210	718.887
EAE	2.141.809	2.104.041	2.082.587	2.179.815	2.193.199

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaketa Estatistika

1981-2021 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 11,8 puntuko igoera izan du. Azpeitiarren % 9,6 ziren 65 urte edo gehiagokoak 1981ean, 2021ean, aldiz, % 21,4 dira.

Era berean, 20 urtetik beherakoen ehunekoak 13,8ko jaitsiera izan du. Horrela, 20 urte baino gutxiagokoak biztanleriaren % 35,3 ziren 1981ean; 2021ean, aldiz, % 21,5 dira.


Biztanleriaren bilakaera adin-talde nagusien arabera. Azpeitia, 1981-2021 (%)

Adina	1981	1991	2001	2011	2021
≥ 65	9,6	12	14,6	17,9	21,4
20-64	55,2	59,5	64	61	57,1
0-19	35,3	28,5	21,3	21,1	21,5
Guztira	13.196	13.427	13.708	14.540	15.329

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistika

Azpeitiko biztanleria osoaren % 50,5 gizonezkoak dira (7.738) eta % 49,5 emakumezkoak (7.591). 0-9 urte bitartekoen artean, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, 10-75 urte bitartekoen artean ez dago ia alderik bi sexuen banaketari dagokionez. Aldiz, 75 urte edo gehiagokoen artean, askoz gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino (% 57,4 versus % 42,6).


Azpeitiko biztanleriaren piramidearen bilakaera, 1981-2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak

1.2. Atzerriko immigrazioa


2021ean Azpeitiko biztanleen % 9,7 atzerrian jaiotakoa da (1.480 pertsona); bi hamarkada lehenago, 2001ean, % 0,9 (121 pertsona). Hazkunde handiena, batez ere, azken hamar urteetan gertatu da: 2011n % 6 ziren atzerrian jaiotakoak. Horrek esan nahi du, atzerrian jaiotakoen ehunekoa ia bikoiztu egin dela azken 10 urte hauetan (1.480 versus 855).



Sexuari dagokionez, atzerrian jaioakoen artean gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino (% 52,3 gizonezkoak eta % 47,7 emakumezkoak).

Era berean, adinaren arabera banaketa egiterakoan, atzerriko biztanleriaren ezaugarriak nagusienetakoa islatzen da piramidean: ikus daitekeenez, biztanleria gaztea da, hamar lagunetik zortzi baino gehiago 50 urtetik beherakoak baitira.

Adin-talde jakin batzuetan, bereziki 25 eta 45 urte bitartekoetan, atzerriko populazioak pisu handia du (atzeritarren ia erdiak dira adin tarte horretakoak, % 48,8). 70 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko biztanleek ehuneko txikia osatzen dute (% 1 baino gutxiago dira).



Iturria: Ikuspegi


Jatorriari dagokionez, Azpeitiko atzerriko biztanleen % 36 Amerikan jaiotakoak dira, Afrikan % 30,4, Europan % 17,5 eta Asian gainerako % 16,1. Ozeanian jaiotakoak ez dira iristen % 0,1era.



Iturria: Ikuspegi

1.3. Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntza-ereduak

2021/2022 ikasturtean Azpeitian 2.916 ikasle daude matrikulatuta araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan, denak D ereduari.



Hizkuntza-ereduak martxan jarri zirenetik asko aldatu da egoera. 1983/1984 ikasturtean hiru ereduak zeuden matrikulatuta ikasleak. Horrela, ikasleen % 24,8 A ereduari matrikulatuta zegoen, % 26,1 B ereduari eta % 49,1 D ereduari. 2000/2001 ikasturtetik aurrera, hamar ikasletik ia bederatzi D ereduari zeuden matrikulatuta, eta gainerakoak B ereduari. 2011/2012 ikasturtetik aurrera, ikasleen % 100 dago matrikulatuta D ereduari ikasketa maila guztietan, baita Lanbide Heziketan ere.

Hizkuntza-ereduen bilakaera. Azpeitia, 1983/84 - 2021/22

	Guztira	Azpeitia			Azpeitia (%)		
		A	B	D	A	B	D
1983/1984	3.812	946	994	1.872	24,8	26,1	49,1
1990/1991	3.337	130	863	2.344	3,9	25,9	70,2
1996/1997	2.842	37	318	2.487	1,3	11,2	87,5
2000/2001	2.611	0	307	2.304	0,0	11,8	88,2
2010/2011	2.862	0	203	2.659	0,0	7,1	92,9
2013/2014	3.035	0	0	3.035	0,0	0,0	100,0
2021/2022	2.916	0	0	2.916	0,0	0,0	100,0


Iturria: EUSTAT

1.4. Helduen euskalduntzea

2022-23 ikasturtean Azpeitiko 124 ikasle matrikulatu dira euskarazko maila desberdinetan (Azpeitiko euskaltegian zein kanpoko beste euskaltegi batean). Matrikulak kontatzeko orduan, ikasturte honetan pertsona batek maila berdinean bi matrikula egin baldin baditu, behin baino ez da kontatu.

Ikasleen erdia baino gehiago C1 mailan matrikulatu da (79 ikasle), C2 mailan ia bostetik bat (23 ikasle) eta gainerakoak B1 (18) eta B2 (4) mailetan.

Helduen euskalduntzea. Azpeitia, 2022/23 (%)



Iturria: HABE

Matrikulazioaren bilakaerari dagokionez azken harmarkadako datuei erreparatuz, ikusten da, gorabeherak gorabehera, azken urteetako ikasleen matrikulazioa hazi egin dela ikasturtetik ikasturtera. Esaterako, 77 ikasle zeuden matrikulatuta 2012-13 ikasturtean eta 2021-22 ikasturtean, aldiz, ia horren bikoitza, 143.

Mailari dagokionez, oro har, urteetako joera mantendu egin da: ikasle kopururik handiena C1 mailan matrikulatzen da. Matrikulazioen gorakadarik handiena, aldiz, C2 mailak izan du, batik bat azken bost urteetan.

Bestalde, ikastaroak ere aldatu egin dira. 2004-05 ikasturtean ez zegoen ez C2ko ikastarorik ezta Z-mailakorik ere.

Z-mailako ikastaroak dira Helduak Euskalduntzeko Oinarrizko Curriculum-eko esparrutik kanpora daudenak. Esate baterako, Euskaltzaindiaren azken arauak ezagutzeko ikastaroak, hitanoaren gainekoak, eta abar. Maila hau lehenago Goi-maila deitzen zen haren parekoa da.

Helduen euskalduntzearen bilakaera. Azpeitia, 2004/05-2022/23


	Guztira	B1	B2	C1	C2	Z-maila
2022/2023	124	18	4	79	23	0
2021/2022	143	4	14	82	25	18
2020/2021	139	16	8	85	30	0
2019/2020	97	14	16	43	24	0
2018/2019	65	3	10	40	11	1
2017/2018	76	8	11	48	9	0
2016/2017	109	8	10	52	19	20
2015/2016	87	11	4	39	15	18
2014/2015	98	12	12	51	9	14
2013/2014	90	21	11	36	7	15
2012/2013	77	18	5	37	12	5
2011/2012	71	1	14	27	7	22
2010/2011	97	14	15	33	6	29
2009/2010	97	10	18	50	9	10
2008/2009	98	24	8	33	6	27
2007/2008	74	21	17	19	5	12
2006/2007	122	12	17	86	7	0
2005/2006	77	15	6	50	6	0

Iturria: HABE

2. HIZKUNTZA GAITASUNA

2.1. Hizkuntza-gaitasuna Azpeitian

Bost urte edo gehiagoko 12.123 azpeitiar euskaldunak dira, biztanleriaren % 82,8.



2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 14.638 pertsona bizi dira Azpeitian. Horietatik, 12.123 pertsona (% 82,8) euskaldunak¹ dira. Beste 950 pertsona (% 6,5) euskaldun hartzaileak² dira. Azkenik, 1.565 pertsona (% 10,7) erdaldunak³ dira.


Atzera begiratuz gero, hau da, 1981eko datuari erreparaturaz gero, esan daiteke ia ez dela aldatu euskaldunen ehunekoa (% 83,9 versus % 82,8). Azken 20 urteak kontuan hartuz, ordea, jaitsi egin da euskaldunen ehunekoa, ia 6 puntuko beherakada izan baitu. Euskaldunak % 88,6 ziren 2001ean eta % 82,8 dira 2021ean.

¹Euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko.

²Euskaldun hartzailea gai da euskaraz ondo ulertzeko, nahiz eta ondo ez hitz egin. Bestela, ondo ulertzeko gai ez bada, gai da zailtasunez bada ere, hitz egiteko.

³Erdalduna ez da gai ez euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

Euskaldunen bilakaera. Azpeitia, 1981-2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Azken bi hamarkadetako biztanleriaren joan-etorriek, atzerriko etorkinen hazkundeak eta oraingoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa zuten jende nagusiaren heriotzak euskaldunen hazkundera murriztu egin du.

Euskaldun hartzaileen eta erdaldunen ehunekoak ez dira askorik aldatu 1981 eta 2021 alderatuz, nahiz eta 1991n eta 2001ean aldeak handiagoak izan.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Azpeitia, 1981-2021 (%)

	1981	1991	2001	2011	2021
Euskaldunak	83,9	88,4	88,6	83,8	82,8
Euskaldun hartzaileak	6,1	3,9	4,3	5,0	6,5
Erdaldunak	10,0	7,8	7,1	11,2	10,7

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak


2.2. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzerakoan, aipagarria da euskaldunen ehunekoa handia dela adin-talde guztietan (lau azpeitiarretik hiru edo gehiago). Euskaldunen ehunekorik handiena 20 urtetik beherako gazteen artean dago (% 95). Era berean, adin horretako euskaldun hartzaileen ehunekoa % 4 da, eta ia ez dago erdaldunik.

20 urtez azpiko gazteen ondoren, 70 urtetik gorako pertsonen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena (% 85 inguru).

Euskaldunen ehunekorik txikiena 30 eta 40 urte bitarteko azpeitiarrek dute (% 75 inguru). Kontuan hartu behar da adin-tarte horretan dagoela atzeritiko etorritako pertsonen kopururik handiena. Euskaldun hartzaileek adin-tarte horretan dute pisurik handiena (% 11), eta erdaldunen ehunekoa ere esanguratsua da (% 14).

Erdaldunen ehunekoa % 10 baino handiagoa da 25 urtetik gorako adin-talde guztietan, Erdaldunen ehunekorik handiena (% 15 inguru) 30 eta 44 urteko azpeitiarren artean dago.




Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Azpeitia, 2021 (%)

	Azpeitia			
	Guztira	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
≥ 85	551	82,0	4,5	13,4
80-84	437	84,7	0,7	14,6
75-79	637	84,6	3,6	11,8
70-74	836	85,5	4,9	9,6
65-69	812	82,0	7,3	10,7
60-64	991	80,1	8,3	11,6
55-59	1023	78,8	6,1	15,2
50-54	1088	76,9	9,9	13,1
45-49	1203	78,4	8,1	13,5
40-44	1163	76,7	7,3	16,0
35-39	914	75,5	10,1	14,4
30-34	808	73,6	11,8	14,6
25-29	792	82,8	4,8	12,4
20-24	770	89,0	4,8	6,2
15-19	830	96,9	1,6	1,6
10-14	913	97,5	2,5	0,0
05-09	870	90,7	7,7	1,6
GUZTIRA	14638	82,8	6,5	10,7

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

1981-2021 aldian hizkuntza-gaitasunaren bilakaera zer-nolakoa den aztertzean, ikusten da 1981ean, euskaldunen ehunekorik altuena 60-85 urte bitartekoek zutela (% 86tik gora) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsiera apala zegoela euskaldunen ehunekoan. Dena dela, euskaldunen ehunekoa % 80tik gorakoa zen adin-talde guztietan.

Gaur egun, ordea, gazteenen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena, eta txikiena 30-60 urte bitartekoen artean (%80 baino gutxiago). 60 urtetik gorakoen artean euskaldunen ehunekoa % 80tik gorakoa da.



Euskaldun hartzaileei dagokienez, 1981ean ehunekorik handiena gazteenen artean zegoen, % 11,9 euskaldun hartzaileak baitziren 10-14 urte bitartekoen artean; eta gutxituz zihoan adinean aurrera egin ahala. Euskaldunekin bezala, aldaketa gertatu da 40 urte hauetan. Izan ere, gaur egun, euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena, 30-34 urte bitartekoen artean dago (% 11,8).

1981ean erdaldunen ehunekorik handiena 25-64 urte-bitarteko helduen artean zegoen (% 12,3 batez beste). Gaur egun ere, adin talde horietan erdaldunen ehunkoa ordukoaren antzekoa da (% 13,9 batez beste 2021ean), eta nagusiagoek ere antzeko ehunkoak dituzte. Gaur egun, 20 urtetik beherakoek dituzte ehunekorik txikiak (% 1 batez beste).

Azpeitiarren hizkuntza gaitasunaren bilakaera adinaren arabera. 1981-2021 (%)						
	1981			2021		
Adina	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak	Euskaldunak	Euskaldun hartzailleak	Erdaldunak
≥ 85	80,7	7,0	12,3	82,0	4,5	13,4
80-84	86,7	3,5	9,7	84,7	0,7	14,6
75-79	88,4	1,6	10,0	84,6	3,6	11,8
70-74	91,9	0,8	7,3	85,5	4,9	9,6
65-69	89,3	1,1	9,6	82,0	7,3	10,7
60-64	86,6	2,1	11,3	80,1	8,3	11,6
55-59	85,5	2,2	12,3	78,8	6,1	15,2
50-54	84,2	3,3	12,5	76,9	9,9	13,1
45-49	82,6	3,1	14,3	78,4	8,1	13,5
40-44	82,6	4,7	12,8	76,7	7,3	16,0
35-39	82,6	5,1	12,3	75,5	10,1	14,4
30-34	84,9	5,0	10,1	73,6	11,8	14,6
25-29	81,1	6,1	12,9	82,8	4,8	12,4
20-24	84,3	8,0	7,7	89,0	4,8	6,2
15-19	81,1	9,5	9,4	96,9	1,6	1,6
10-14	83,0	11,9	5,1	97,5	2,5	0,0
05-09	83,7	9,7	6,7	90,7	7,7	1,6
GUZTIRA	83,9	6,1	10,0	82,8	6,5	10,7
Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak						

2.3. Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera

Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera kontuan hartuz, emakumezkoen % 83,6 dira Azpeitian euskaldunak eta gizonezkoen artean, berriz, % 82. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, 1,6 puntukoa hain zuzen ere.

Euskaldun hartzaileen artean, berriz, aldeak txikiak dira: % 6,2 emakumezkoak eta % 6,8 gizonezkoak.

Azkenik, erdaldunei dagokienez, aldea puntu 1ekoa da: % 10,2 emakumezkoak eta % 11,2 gizonezkoak.

Hizkuntza-gaitasuna sexuaren arabera. Azpeitia, 2021 (%)

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaldunak	82,8	83,6	82,0
Euskaldun hartzaileak	6,5	6,2	6,8
Erdaldunak	10,7	10,2	11,2

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021


3. LEHEN HIZKUNTZA

3.1. Lehen hizkuntza Azpeitian

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

2021ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko datuen arabera, Azpeitian bost urte edo gehiagoko biztanleen % 71,5ek euskara soilik jaso du etxean eta beste % 4,9k euskara eta gaztelania jaso ditu.

Era berean, % 18,8k gaztelania soilik jaso du etxean, eta % 4,8k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat.



Azken hamarkadako atzerriarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso du etxean. Datu hori bikoiztu egin da azken hamar urteetan.


Azpeitian azken hogeita hamabost urteotan, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa jaitsi egin da (12,6 puntu). Igo egin da, aldiz, euskara gaztelaniarekin batera (3,8 puntu), gaztelania (4,2 puntu) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoa (4,6 puntu).

Lehen hizkuntzaren bilakaera. Azpeitia, 1986-2021

	Guztira	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Gaztelania	Beste bat
1986	12.363	10.391	136	1809	27
1991	12.742	10.693	196	1829	24
2001	12.927	10.603	289	1920	115
2011	13.528	10.283	458	2.404	383
2021	14.638	10.473	707	2.751	707

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

Lehen hizkuntzaren bilakaera. Azpeitia, 1986 - 2021 (%)




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

3.2. Lehen hizkuntza adinaren arabera

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa % 75etik gorakoa da 60 urte edo gehiagokoen artean. Gainerako adin-taldeetan ehunekoa txikiagoa da.

Lehen hizkuntza euskara gaztelaniarekin batera dutenen artean, aldiz, ehunekorik altuena 20 urtez azpikoek dute (% 10 gutxi gorabehera). Adinean gora egin ahala, behera egiten du etxean euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekoak, eta 45 urtetik gorakoen artean % 4 edo txikiagoa da ehuneko hori.

Lehen hizkuntza gaztelania edo gaztelania eta euskara ez den beste bat dutenen ehunekorik altuenak 30-39 urte bitarteko adin-taldeek dute bi kasuetan: gaztelania (% 21,7 batez beste), eta gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat (% 19,4 batez beste).




Azpeitiko lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, duela 35 urte lehen hizkuntza euskara soilik zutenen ehunekorik altuena 55 urtetik gorakoek zuten (% 86 baino gehiago), eta jaitsi egiten zen adinean behera egin ahala, 15-24 urte bitartekoek zutelarik ehuneko txikiena (% 81,4). Gaur egun ere 60 urtetik gorakoek dute ehunekorik altuena eta, salbuespenak salbuespen, 40 urtetik beherakoek txikiena.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania zutenei dagokienez, oraingo ume eta gazteek baino askoz ehuneko txikiagoa zuten duela 35 urte. Oso txikia zen ehunekoa adin talde guztietan (% 1,1 batez beste). Era berean, lehen hizkuntza gaztelania zutenen ehunekoa ere oraingoa baino txikiagoa zen ia adin talde guztietan.

Azkenik, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat zutenen ehunekoa oso txikia zen adin talde guztietan. Gaur egungo ehunekoekin alderatuz gero, 7 puntuko aldea dago zenbait adin-taldetan. Aldaketa hori ezin da ulertu etorkinek izan duten bilakaera kontuan hartu gabe.

Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Azpeitia, 1981-2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

3.3. Lehen hizkuntza sexuaren arabera

Lehen hizkuntza sexuaren arabera kontuan hartuz, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoak oso parekoak dira: emakumeen %71,6k dauka euskara soilik lehen hizkuntza, eta gizonezkoen artean, aldiz, %71,5ek.

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania biak dutenak % 5 dira emakumezkoak, eta %4,6 gizonezkoak.

Gaztelania soilik jaso dutenen ehunekoak ere paretsuak dira: % 18,9 versus % 18,7.

Azkenik euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenen artean aldea apur bat handiagoa da: % 4,4 emakumeak eta % 5,2 gizonezkoak.

Lehen hizkuntza sexuaren arabera. Azpeitia, 2021 (%)

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskara	71,5	71,6	71,5
Biak	4,8	5,0	4,6
Gaztelania	18,8	18,9	18,7
Beste bat	4,8	4,4	5,2

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021

3.4. Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Euskaldunen hizkuntza-ibilbidea aztertuko da jarraian. Horretarako, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna aldagaiak gurutzatuko dira.


Euskaldunak hiru multzotan banatu dira euren lehen hizkuntzaren arabera: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak.

2021eko Zentsuaren arabera, Azpeitian bost urte edo gehiagoko euskaldunen % 84k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira. Hortaz, 10.187 euskaldun zahar daude Azpeitian.

Azpeitiko euskaldunen % 5,4k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebidunak dira.


Azkenik, etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak % 10,6 dira, hau da, euskaldun berriak dira. Euskaldun berriak etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian. Azpeitiko euskaldun gehienek lehen hizkuntza euskara bada ere, gero eta gehiagok bigarren hizkuntza du euskara.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera. Azpeitia, 2021 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

Euskaldunen multzoa aldatu egin da azken 35 urteotan. 1986an ia denak ziren euskaldun zaharrak (% 95,9) eta gaur egun ehunekoa txikiagoa da (% 84). 1986n euskaldun berrien ehunekoa oraingoaren herena baino txikiagoa zen (% 3,1 versus % 10,6) eta are txikiagoa zen jatorrizko elebidunen ehunekoa (% 1,1 versus % 5,4).




3.5. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertzerakoan, azpimarratzekoa da desberdintasunak handiak direla gazteenen eta nagusien artean.

Horrela, 20 urtetik beherako azpeitiar euskaldunen % 21ek erdara du lehen hizkuntza, hau da, euskaldun berria da. Aldiz, adinean gora egin ahala euskaldun berrien ehunekoa gutxituz doa nabarmen. Horrela, 65 urte edo gehiagoko euskaldunen % 4,2 dira soilik euskaldun berriak.

Euskaldun zaharren kopurua altua da Azpeitian adin-talde guztietan. Halere, ehunekorik handiena 50 urte edo gehiagoko azpeitiarren artean dago (% 91,8 batez beste). Adinean behera egin ahala jaitsiz doa ehunekoa: 20 urte baino gutxiago duten euskaldunen artean hamarretik zazpi baino gutxiago da (% 68,6) euskaldun zaharra.


Euskaldun berriekin gertatzen den bezala, jatorrizko elebidun gehienak ere gazteak dira. Adinak behera egin ahala, haziz doa jatorrizko elebidunen ehunekoa. Hazkunde hori handia da 20 urtetik beherakoen artean (% 10,4).



Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, azken hogeita hamabost urteotan, euskaldun zaharren ehunekoa berdintsu mantendu da 65 urte edo gehiago dituztenen artean, baina behera egin du gainerakoetan, batez ere, gazteenen artean.

Jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak, aldiz, gehiago dira gaur egun adin-talde guztietan. 1986an ia ez zegoen ez jatorrizko elebidunik, ezta euskaldun berririk ere, 5-19 urte bitartekoaren artean izan ezik.

Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Azpeitia, 1986-2021 (%)




Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuak

4. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

4.1. Euskararen erabilera etxean Azpeitian

2021ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 14.638 pertsona bizi dira Azpeitian. Horietatik, % 63,3k euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti (9.265 pertsona), eta % 8,8k euskara eta gaztelania (1.291 pertsona).

Etxean gaztelania erabiltzen dutenak % 24,3 dira (3.563 pertsona) eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak % 3,5 (519 pertsona).



Azken 30 urteotan, euskararen erabilerak etxean behera egin du hamarkadaz hamarkada: 1991an euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenak % 77,6 ziren; 2001ean, % 76,8; 2011n, % 70; eta 2021ean %63,3.

Aldiz, etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak ez du aldaketa esanguratsurik izan 1991 eta 2021 bitartean. Hortaz, euskara beti edo ia beti eta euskara eta erdara erabiltzen dutenen ehunekoak 14,1 puntuko jaitsiera izan du azken 30 urteetan (% 86,2 versus % 72,1). Horrek esan nahi du erdararen erabilerak gora egin duela Azpeitiko etxeetan.

1991n % 13,7 ziren gaztelaniaz soilik mintzo zirenak etxean; 2021ean, berriz, % 24,3 dira. Hau da, 9,6 puntuko igoera izan du.

Era berean, azpimarratzekoa da etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen hazkundea: 1991n eta 2001ean apenas erabiltzen zen euskara edo gaztelania ez zen beste hizkuntzaren bat Azpeitiko etxeetan (% 0,1 eta % 0,5 hurrenez hurren). 2021ean, ostera, ehunekoa % 3,5 da.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera. Azpeitia, 1991-2021 (%)

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Bestebat
1991	77,6	8,6	13,7	0,1
2001	76,8	8,4	14,2	0,5
2011	70,0	7,5	20,9	1,6
2021	63,3	8,8	24,3	3,5


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

4.2. Euskararen erabilera etxean adinaren arabera

2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 65 urtetik gorakoak dira (% 76,2 batez beste). Adinean behera egin ahala ehunekoa jaitsiz doa. Halere, etxean euskara soilik erabiltzen dutenen ehunekorik txikiena 25-40 urte bitarteko biztanleek osatzen dute (% 51 gutxi gorabehera). Kontutan hartu behar da adin tarte horretan Azpeitiko biztanleen % 28 pasatxok erdara dutela soilik lehen hizkuntza. Hain zuzen ere lehen hizkuntza zuzenki lotuta dago erraztasunarekin, eta berau, erabilerarekin.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoek dute (% 11,9 batez beste), bereziki 5-9 urte bitartekoek (%17). Adinak gora egin ahala, behera egiten du etxean hizkuntza biak erabiltzen dituztenen ehunekoak.


Gaztelaniaren erabilera asko jaisten da 65 urtetik gorakoen artean (% 18,1 batez beste), eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenen portzentajerik handiena 30-40 urte bitartekoek dute (% 9,7 batez beste). 60 urtetik gorakoen artean ez da apenas erabiltzen euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat.




Duela 30 urte aldiz, ez zegoen alde handirik etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenen artean, eta gorabeherak gorabehera, ezta euskara eta gaztelania edo gaztelania soilik erabiltzen zutenen artean ere. Gainera, beste hizkuntzen erabilera oso-oso eskasa zen adin-talde guztietan 1991n, % 0,1 batez beste.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren bilakaera adinaren arabera. Azpeitia, 1991-2021

1991



2021



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 2021

4.3. Euskararen erabilera etxean sexuaren arabera

Sexuari erreparatuz, badago alderik etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen artean: emakumezkoetan % 64,6 dira etxean euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak, eta gizonezkoetan, berriz, % 62. Aldea 2,6 puntukoa da.

Aldiz, euskara eta gaztelania biak erabiltzen dituztenen artean ia ez dago tarterik: % 8,8 versus % 8,9.

Gaztelaniaren kasuan aldea 1,7 puntukoa da: emakumezkoen %23,5 dira etxean gaztelania soilik erabiltzen dutenak, eta gizonezkoetan, %25,2.

Azkenik, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenei dagokionez, emakumezkoen % 3,2k erabiltzen du etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta gizonezkoen % 3,9k.

Etxeko erabilera sexuaren arabera. Azpeitia, 2021 (%)


	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskara	63,3	64,6	62,0
Biak	8,8	8,8	8,9
Gaztelania	24,3	23,5	25,2
Beste bat	3,5	3,2	3,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021

4.4. Euskararen erabilera etxean euskaldunen artean

Atal honetan euskaldunek etxean egiten duten euskararen erabilera aztertuko da. Euskara erabiltzeko gaitasuna dutenak bakarrik izango dira kontuan. Hortaz, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak ez dira sartuko.

Hala, euskaldunen hiru laurdenak baino gehiagok (% 76,4k) euskara erabiltzen du etxean, % 9,6k euskara eta erdara eta gainerako % 13,9k ez du euskararik erabiltzen etxean.



Duela 30 urte Azpeitian etxean euskara edo euskara eta erdara erabiltzen zituen euskaldunen ehunekoa handiagoa zen (% 96,4). Horietatik, % 87,8k euskara beti edo ia beti erabiltzen zuten euskara etxean eta % 8,6k euskara eta erdara. Hortaz, 10,4 puntuko jaitsiera izan du euskara beti edo ia beti edo erdararekin batera erabiltzen duten euskaldunen ehunekoak (% 96,4 versus % 86). Hau da, erdara erabiltzen dutenen ehunekoa ia laukoiztu egin da (% 3,6 versus 13,9).

Euskaldunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera. Azpeitia, 1991-2021

Euskaldunak	Azpeitia				Azpeitia (%)			
	1991	2001	2011	2021	1991	2001	2011	2021
Euskara	9.888	9.930	9.449	9.265	87,8	86,7	83,3	76,4
Euskara eta erdara	967	936	994	1.167	8,6	8,2	8,8	9,6
Erdara	405	581	558	1.691	3,6	5,1	7,9	13,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak


Euskaldunen irabazirik handienak euskaldun berrietatik datoz. Gero eta euskaldun gehiago dago etxean erdara jaso duena eta euskara etxetik kanpo ikasi duena. Lehen hizkuntza erdara izateak eragin zuzena du euskara erabiltzeko erraztasunarekin. Horrez gain, harreman-sarea erdalduna izateak, kasu honetan etxeko kide guztiak edo batzuk erdaldunak izateak, zaildu egiten du euskaraz egitea etxean.

Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehen hizkuntza euskara izateak duen eragina etxeko erabileran. Horrela, lehen hizkuntza euskara hutsik izan dutenen, hau da, euskaldun zaharren % 84,2k euskara erabiltzen du etxean, % 7,2k euskara eta erdara, eta % 8,6k ez du euskararik erabiltzen etxean.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera jaso dituztenen artean asko jaisten da erabilera. Jatorrizko elebidunen erdiak baino gutxiagok (% 47,3) erabiltzen du euskara etxean, laurden

bat pasatxok (% 27,2) euskara eta erdara, eta beste laurdenak (% 25,5) ez du euskararik erabiltzen etxean.

Euskaldun berrien kasuan, erabilera txikiagoa da. Izan ere, lehen hizkuntza erdara izan duten euskaldunen % 29,9k euskara erabiltzen du etxean, % 20k euskara eta erdara eta % 50,1ek ez du euskararik erabiltzen.



Duela 30 urte baino euskaldun zahar gutxiagok erabiltzen du euskara beti edo ia beti etxean, % 92,8 baitziren 1991n, eta % 84,2 dira 2021ean.

Etxean euskara ia beti erabiltzen duten jatorrizko elebidunen ehunekoak, oster, gora egin du: 40,8 puntuko igoera izan du ehunekoetan azken 30 urteotan (% 6,5 versus % 47,3).

Era berean, euskara etxean beti edo ia beti erabiltzen duten euskaldun berrien ehunekoak eregora egin du. 1991n euskaldun berrien % 6,9k erabiltzen zuen euskara beti edo ia beti etxean; eta 2021ean, berriz, ia hirutik batek (% 29,9).

Etxean euskara ia beti erabiltzen duten euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Azpeitia, 1991-2021

	1991		2001		2011		2021	
	Kopurua	(%)	Kopurua	(%)	Kopurua	(%)	Kopurua	(%)
Euskaldun zaharrak	9.844	92,8	9.847	93,3	9.204	90,5	8.573	84,2
Jatorrizko elebidunak	34	6,5	16	6,1	145	33,9	308	47,3
Euskaldun berriak	10	6,9	67	10,7	100	13,4	384	29,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

5. LABURBILDUZ

- Gero eta biztanleria zaharragoa izateak eta atzerriko immigrazioak izan duen hazkundeak eragina izan du azken urteotako hizkuntzaren bilakaeran. Azpeitian gaur egun % 21,4 dira 65 urtetik gorako biztanleak; 1981ean, aldiz, % 9,6 ziren. Atzerrian jaioetako etorkinei dagokienez, berriz, Azpeitiko biztanleen % 9,7 dira gaur egun; 2011n % 6 ziren, eta % 1 baino gutxiago 2001ean.
- Bost urte edo gehiagoko biztanleen % 82,8 euskalduna da, % 6,5 euskaldun hartzailea eta % 10,7 erdalduna. Gaur egun, 12.123 euskaldun daude Azpeitian.
- Euskaldunen ehunekorik handiena 10-14 eta 15-19 urte bitartekoen artean dago, % 97,5 eta % 96,9 hurrenez hurren. Bestalde, 30-60 urte bitartekoen artean euskaldunen ehunekoa 80 puntutik beherakoa da eta ehunekorik txikiena 30-34 urte bitarteko adin-taldearena da: % 73,6.
- Euskaraz erraztasunik ez duenak erdaraz egiteko joera izaten du. Gaur egun euskaraz mintzatzeko erraztasun eta gaitasun erabatekoa bermatzen duen bereizgarria bakarra euskara lehen hizkuntza izatea da. 20 urtetik beherako azpeitiar euskaldunen %21ek erdera du lehen hizkuntza. Azpeitian azken hogeita hamabost urteotan, lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa jaitsi egin da (12,6 puntu).
- Lehen hizkuntzari dagokionez, lehen hizkuntza soilik euskara dutenen ehunekoa duela 35 urte baino txikiagoa da (% 71,5 versus % 84,1). Era berean, gero eta ume gehiagoren lehen hizkuntza da gaztelania euskararekin batera. Horrela, % 9,7 dira jatorrizko elebidunak 5-9 urte bitartekoen artean.
- Atzerriko immigrazioaren eraginez, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenak, batez ere 30-39 urte bitarteko gazte helduak: % 9,4. Era berean, gaztelania lehen hizkuntza dutenak ere hazi egin dira, bereziki aipatutako adin tartean: 30-39 urte bitartekoen % 21,8k du gaztelania lehen hizkuntza. Kontutan hartu behar da atzerrian jaioetako populazioak pisu handia

duela hain justu ere 30-45 urte bitarteko adin-taldeetan, eta horrek badauka eragina lehen hizkuntza gaztelania soilik dutenen artean ere, izan ere, kanpoan jaiotako biztanleen herena baino gehiago (% 36) Amerikan jaio da.

- Euskaldun gehienak euskaldun zaharrak dira. Hamar euskaldunetik zortzi pasatxo euskaldun zaharrak (% 84) dira, eta jatorrizko elebidunak, % 5,4 dira; hau da, euskaldunen % 89,4k euskara jaso du etxean. Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten euskaldunak, hau da, euskaldun berriak % 10,6 dira.
- Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 15 urtetik beherako azpeitiar euskaldunen % 21ek erdara du lehen hizkuntza.
- Etxeko erabilerak behera egin du azken 30 urteotan. 1991n Azpeitiko biztanleen % 77,6k erabiltzen zuen euskara beti edo ia beti etxean, eta % 63,3k 2021ean.
- Duela 30 urte ez zegoen alde handirik adinaren araberrako erabileran. Gaur egun, 65 urte edo gehiagokoak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Duela 30 urteko egoerarekin alderatuz, jatorrizko elebidun eta euskaldun berri gehiagok erabiltzen du etxean euskara beti edo ia beti. Euskaldun zaharren artean, berriz, erabilera jaitsi egin da (% 84,2 versus % 92,8).